

# CHILE'N PARLAMENTURAKO ELEKZIOAK

## Ori dala ta partiduen joera

Ill onen zazpian aukeratu bear dituzte Chile'ko biztanleak bere diputaduak.

Lengo urtean lendakaria aukeratzeko, elekzioak izan ziran. Garrantzi aundiko elekzioak, Lenengo aldiz erreboluzioa egiteko bi modu desberdinak jarri ziran elektoreen aurrean eta auker, elektoreak, «libertatearen barruan erreboluzioa» egin nai zuna aukeratu zuten. Orregatik Frei kristau demokrata atera zan aukeratua eta ez Allende sozialista ta komunisten gidaria. Baiñan ez uste izan Frei jauna Europa'ko zenbait kristau demokrata bezelakoa danik. Ez. Europa'ko kristau demokratik geienetan eskubi alde-ra jotzen dute, Frei jaunak berriz oso osorik ezkerreara.

Chile'ko konstituzioak dionez lendakariak asko lezake estadia gobernatzeko baiñan Parlamentua bere kontra baldin badauka oso zail izango zaio lendakariari, au da Frei jaunari nai dituan reforma ta es-

truktura berritze egitea. Eta orain arteko Parlamentua ez zan Frei'ren aldekoa, geien bat eskubizaleen eta konserbadoreen eskuetan zegoen ta. Orain, ill onen zazpian, izango dira



e'lekzioak. Orregatik ezin ukatu elekzio auker duten garrantzia. Frei'ren partidua, au da, kristau de-

### RICARDO ARREGI

mokraziak, bear aine diputadu bereganatzen ez baldin baditu elekzio auetan oso zail izango zaio Frei jaunari berak egin nai ditun guztiak egitea.

### PARTIDUAK, ELEKZIOA AUEK DIRALA TA EGIN DUTEN TRATUA

Chile'n lengo elekzioak izan ziran esan nuen zein jator eta zuzen jokatu zuten demokrasiaren barruan partidu guztiak komunistetarik asi ta eskubizaleenganaino. Oraingo ontan beste orrenbeste esan ditekela uste dut.

Chile'ko sei partidu politiko aundienak elekzio auetan al duten gutxiene gastatzeko erabakia artu duten elkarren artean eta ortarako elekzioetarako kanpaina austeridarearen barruan egitea. Ortarako neurri batzuek jarri dituzte ta denak onartu dituzte neurri oiek. Komunistak, sozialistak, radikalak, kristau demokratik, liberalak eta konserbadoreak. Benetan txalagarria iruditzen zait joera au. Eta uste dut ejenplu on bat dela.

Gaur egunean edozein gizartean, edozein estaduen pentsamentu zearo desberdinak dituzten gizonak eta taldeak arkitzen ditugu. Pentsa komunistak, katolikoak, eskubizaleak eta konserbadoreak edozein lekutan, erri berdiñean arkitu ditzazkegula. Ori orrela dalarik oiek danak nola elkarren artean pakean bizi, justizi baren barruan? Ori da problema.

Bakoitzak arrazoi duela pentsatzen, du ta besteak sobra daudela. Orregatik izango dira talde oietatik batzuek onena talde batek agintzea dala ta bestiei ixiltaraztea dala pentsatzen dutenak. Baiñan ori ez da prolema konpontzea. Prolema doto bat baiñan geiago zituan: komunistak, katolikoak eta konserbadoreak etab esate baterako. Ezin liteke prolema soluzionatu danik bi dato kanpau uzten baldin ditugu, prolema soluzionatzeko soluzioaren barruan dato guztiak sartu bear dute. Eta ori da Chile'n gertatzen danna.

### BURRUKARAKO DANENTZAT KONDIZIOA BERDIRAK

Gizonak eta taldeak berdin pentsatzen ez duten ezkerro nai ta nai ezkoa da, bakoitzak bere ideiak zabaldu nai izatea ta berak pentsatzen duana egin nai izatea. Beraz, nola alabait burruka egin bear dute elkarren artean. Baiñan nola burruka egin eta «elkarren artean bizi»? Galdera oni erantzuna demokratizak eta pluralismoak ematen dio. Elkarrekin bizi ahal izateko bearrezkoa da elkar entzutea. Elkar entzuteko bearrezkoa da pentsatzeko ta itzegiteko askatasuna izatea ta gizonak taldetan biltzen diran ezkerro biltzeko askatasuna izatea. Eta azkenik danak erriaren izenean itzegiten duten ezkerro erriari galdetzea ea zer derizkion. Ori da demokrazia. Behetik gora dijoana ez bestea.

# BELGIKA FEDERALISMO BIDEAN

## Wallonia'ko sozialisten alegiñak erriaren alde

dean, Belgikako Sozialista Partiduko bosteun militante eta mandatariek, Liejan alkarturik, partiduarekin lokarriak auste erabaki zuten eta partidu berri bat egiteko gogoia azaldu.

Gertakizun au, Europako partidu sozialista zaharrentakoaren barruan gertatzea etzan txantxetako gauza. Arrazoi bortsizak euki bear zuten partiduaren eskualde aurrerazaleenak ola jokatzeko. Eta egiazki arrazoi azko ziran eta benetakoa. Bestaldetik txoke au ez da batbatean eta bezterik gabe gertatutako gauza. Sozialista eskertien eta P.S.B.'ko konserbadoreen arteko diferentziak, 1960-1961 neguko huelgak lanatun asi ziran argitara ipinitzen. Ain zuzen ere Walloniako autonomistak momentu onetan artu zuten egiazko bultzada, euren asmatzeko.

Zergatik nahustu ditugu bi gertakizun oriek batean? Bi arrazoigatik: alde batetik langilleen eskabideak eta autonomia joerak bide batetik dihoazelako gaur Wallonian eta bezterik oraingo gobernuak geimbat bildur dituan gauzak oriek biak direlako.

Mayatzaren lenengo egunian Liejan egiten dzen sozialista manifestazioan, azkenengo urte auetan autonomiaren alderako pankarta geiagoko ikusi izan ditu, sozialismoaren alderako baiña. Gaiñera ez dezagun ahaztu sozialismoa aspalditik bato zituela sustrai sakonak ikatz-minez jositako lurralde artan, gueule-noirs (arpegi beltzak) artean. Beraz Wallonian sozialismoa erriaren zati inportante batekin bat eginiñ dago. Beintzat urteroko manifestazio ortan erri-kolore biziz agertzen zaitzugu sozialistak.

### BELGIKAKO BI ERRIEN DESBERDINTASUNAK

Orainarte Belgikan Flamenkoak eta Wallonak estadu baten mendean bizi izan dira batere bereizkizunik gabe. Teoriz bederen bi erriek tratatu eta eskubide berdiñak dituzte. Ala ere edozein Wallone nomia-joerak batuko dituan.

1964'gn urtearen azkenengo igan esango dizukoari berriz eta bereala (neronek mila bider aitua bai du Liejako edozein gizakumeeri) emango dizu gutxienez bi urrazoi: administrazio guztia flamenkoen eskuetan ari direla lagatzen eta azken urte auetan gobernuak industria geiagoko erakitzten ari dela Sartaldean, era bertan Walloniako industria eraberritzea laguntza ukatzen duelarik. Bestaldetik flamenkoak azkarrago ugartzen ari diren bitartean, jaitzak urriagotzen ari zaizkie wallonari.

Arazoi oiegatik eta jakiñik oraindik ere Belgikako industria eta ekonomia-estruktura bortsizena eta ugariene euren partetik dagoela, gogor ekitera erabaki dira, politika eta ekonomia maila bietan. P.S.B. ETA M.P.W.

Walloniako sozialistak: P.S.B. barruan arkitzen dituzten ostopo berdiñak, arkitzen dituen ere Walloniak Belgikako batasunaren barruan. Sozialista flamenkoak baiña eskertiarago izanik, minoriti bat bezterik ez dire partiduak. Eta origati euren planak eta programak aurrera ateratzeko orduan beti frenatuak izaten dira. Era onetan 1954 eta 1956'gn F.G.T.B.'ko (Belgikako langilleen Alkartea) batzarrean autonomiaren alde egin zuten eskabideak, P.S.B.'ko kongresu generatzen erabatian akutuak izan ziren.

1960-1961'ngo neguko huelgak izan zuten arastoo Wallonia guztian, garbi eta argi erakutsi zuten Walloniako langilleen postura federalismoaren alde. Manifestazio auen erantzun egokia bezterik etzan izan. Andre Renard'ek eraki zuan momentu autonomia lortzeko. Momentu egoki artan sartu zuten «Walloniako Erri-Momentua» (M.P.W.).

Ordu eskeroz momentu onek indar aundia artu du. Oraindik P.S.B.'ko wallondar sozialistak eten ez bada partidutik, luzaro gabe ala gertatuko dela deritzazgu. Eta baliteke partidu berri sortzea lengoaren orde, sozialismoaren joera bereziak eta erriak ain gogoz artu duen auito-

### NAZIO-ARTEKO UNEA

## Europaren ixiltasuna

E GUN auetako munduko gertakizun nabarmen eta nahastueri, alde batera utsirik, gaurkoagatik nai genduke idela bakan batzuek eskelini gogoaren patxadan erabiltzeko, eguneroko berrien iskanbillak ematen gaituzten buruausterik gabe. Iskillean, «tono menor» ean juango dira, bazterrak arrotu gabe, sermolegi-learen geizigko posturak artu nai gabe.

Aitortu dezadan gaiñera, ez direla neriak ez atal onen burua, ez galaren mamia, baizik «Esprit» en agertu dzen Stanley Hoffmann'en artikulo batanak: «Le silence de L'Europe».

Erria esan Hoffmann'ek lan orretan ematen dituan arrazoi sakon eta ugariak txokatu egin naute, kolpe bat eman bazian bezela. Eta irakurri ondoren bezterik gabe pentsatu dut, arraxegi, ardura aundirik gabe desiratzen degula gure ameseko Europa batua.

Inoiz baiño aberatsago da Europa gaurko egunian, inoiz baiño aurreratuago eta ala ere ez du behiere arastoo gutxiago izan bere nortasuna adierazteko. Baiñan lenengo galdera momentu ontan bertan sortzen zaiku. Ba ote du oraindik nortasunik zerbait adierazteko? Bein edo bein, dembora azko ez dala izan bazuan nortasun berezi ez ote zaigu aulagotu onekero?

Baiña ausartu gaitaen esaten. Bear bada Europa deseo bat, asmo soil bat bezterik ez da izan, len eta orain, batezere orain, behiere bete eta mamitu ez dzen asmo utsa.

Denok dakigu zeimbat ostopo tartean aurrera dilojan oraindik benetazko Europaren proyektio eta laburpen bat bezterik ez dzen seian Europa. Ostopo gelegi, baiña nere ustez guztian gaiñetik eta aurretik, utsune aundi bat arkitzen da: ain zuzen ere oraindik ez dakigula nor dzen Europaren egiazko nortasuna. Ori ez dakigun bitartean ezin genezake jakin, nora eta nundik abiatu, ezin genezake blotze eta egitan europarrak sentitu. Emen dute kausa eguna baiño argiago ikusten ditugun europako zeimbait nazioetako aurkakizunak, desegokitasunak. Nazionalismoaren eraberritzeak alde batetik eta bezterik amerikanoen imitazio inoioa, Europak ez dauka gogorik pentsaketan aritzeko, arraxago deritzalote Europako nazioeri bakoitzaren iragan «histori ospatsuan» mito zaharrak berpiztea nik eztaikit zein engañatzeko) edo ta edozein etorri-berrien atzetik segitzea (eta zeineri etzayo laket amerikanoen itxurak egitea eta tankerak artzea).

Europak ez du oraindik arpegiarik. Arpegi ori ikusi nai degu European benetan sentitzeko.

M. LASA

### FUNDICIONES AUERRA, S.A.

Burni-urtzeak

EIBAR (Gipuzkoa)

Urrut. 73.542 (lau lerro)

Landola-erremintak, Lan-tresna guzietarikoak, Galtzairu kalibratuak, Leunketa galak.

### FERRETERIA UNZETA

EIBAR. Apartado, 18. Ibarrezeuz, 14 Urrut. 71.000

## FUNCOR S. C. I.

Benetako baserriarrak bear dituzten MAKINAK:

BIRRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakizun'k onenak, emengo nekazarientsat

ADI TA OROI EZAZU

## FUNCOR

AZKAR BEZIN ONDO

E L O R R I O

Vizcaya 114